

Ezustean, bertsolariak ikasgelan

2016/10/19

Gaur, hilak 19, sekulako sorpresa hartu dute Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko graduko ikasleek: ezustean, bi bertsolari ezagun sartu dira ikasgelara eta kantuan hasi dira. **Beñat Gaztelumendik eta Sustrai Colinak ederki erakutsi dute bertsolariek duten ahalmena erregistro eta egoera desberdinetara egokitzeko.** Fakultateko Euskara Batzordeak antolatuko du ekitaldia eta fakultateko campus bietan egin da, Aretxabaletakoan eta Eskoriatzakoan.

Ekitaldi ludiko honen helburuak izan dira, batetik, bertsolaritza hurbiltzea ikasleei eta, bestetik, erakustea hizkuntzaren ahalmena erregistro formal zein informaletan aritzeko. Hala, ikasgelaren birtualtasunaz baliatuz, bertsolariek txantxak egin dituzten ikasleen jarreraren eta izaeren gainean.

Saioek iraun dute ordu laurden ikasgela bakoitzean; behin geletako saioak bukatuta, nahi izan duten ikasle guztiak elkartu ahal izan dira gela handiago batean bertso saioa borobiltzeko.

Argazki sorta ederra egin dute Ekaitz Filarmendik eta Yera Sanchezek:



Sustrai Colinak eta Beñat Gaztelumendik hartu dute gaurko ekitaldian.